

Laburbirak HUHEZIKo ikasleek egindako film labur bat erakutsiko du: "Zorion hutsa"

2010/04/12

Topagunea Euskara Elkarten Federazioak **Zorion hutsa** izeneko film laburra aukeratu du, Laburbiran erakusteko, Film Laburren Zirkuituan. Aurten zortzigarren aldiz egingo da zirkuitua, eta bederatzi lan erakutsiko ditu, **28 saiotan**: 26 Euskal Herriko beste hainbeste herri eta hiritan, eta bana **Paris eta Shanghaiko euskal etxeetan**. Lehen emanaldia apirilaren 13an izango da, Ermuan, Bizkaian, eta azkena maiatzaren 14an, Atarrabian, Nafarroan.

Labur hori HUHEZIKo ikasle talde batek egin zuen 2008an, "**Ikus-entzunezkoen produkzioa eta errealizazioa II**" ikasgaiaren barruan, Ikus-entzunezko Komunikazioa karreraren 4. mailan. Ikasleak dira: **Itziar Faido, Janire Fernandez, Malen Ulazia, Estibaliz Ariz, Gorka Montiel** eta **Vanessa Martin**. Gidoia, berriz, **Ibai Vigil-Escalerak** egin du, berau ere 4. mailakoa.

Filmak **13 minutu** irauten du, eta bertan bi istorio kontatzen dira, patuak elkartuko dituen filmaren une batean. Zorion hutsa ez da perfektua, ordea, egileek ederto jolasten baitira hutsa hitzak euskaraz duen esanahiarekin. Aktore nagusiak Tessa Andonegi eta Asier Oruesagasti izan dira.

